

## JOLAS GARAIKO ANTOLAKETA ETA ARAUDIA

- ORDUTEGIA: HH: 11:00 – 11:45  
 LH: 10:30 – 11:00  
 DBH: Astelehena – Asteartea - Osteguna 10:30 – 11:00  
 Asteazkena Ostirala 11:00 – 11:30

- **ESPAZIOA:**

- Frontoia eta aterpea: Espazio komunak dira, HH-LH-DBH.
- Parkea eta ondoko patioa HH-LH.
- DBHko patioa DBHkoentzat da.

- **ANTOLAKETA:**

**Eguraldi onarekin:**

- Haur Hezkuntzako ikasleek parkea eta patioa erabiliko dituzte.
- Lehen Hezkuntzako ikasleek aurreko puntuan aipatutako espazio guztiak erabili ditzakete.
- Pabiloi atzeko espazioa pasabide bezala erabiliko da, ez bertan jolasten geratzeko.
- Patioa: 2010-2011ko ikasturteko Ikasleen Foroan zelaia zabalean erabiliko zela adostu zen. Ziklo bakoitzari egunero zelaiaren heren bat dagokio. Beraz, zelaiaren luzera erabiliz jolastea debekatuta dago.

PARKEA	FUTBOLA - SASKIBALOA A ZELAIA	SASKIBALOA B ZELAIA	FUTBOLA – SASKIBALOA C ZELAIA
--------	-------------------------------------	------------------------	-------------------------------------

	ASTELEHE NA	ASTEARTE A	ASTEAZKE NA	OSTEGUN A	OSTIRALA
1.ZIKLO A	A	B	C	A	B
2.ZIKLO A	B	C	A	B	C
3.ZIKLO A	C	A	B	C	A

**Eguraldi txarrarekin:**

Eguraldi txarrarekin DBHkoekin partekatzen ditugu aterpea eta frontoia. Egun hauetan ezin da ez baloirik, ez pilotarik erabili; ez frontoian, ez aterpean.

- **ARAU OROKORRAK:**

- Jolas-garaian ezin da geletan eta pasilloetan geratu, ez bada irakaslearen begiradapean.
- Larruzko baloiak debekatuta daude.
- Garbitasuna mantendu behar da, paperontziak erabiliz, txikleak, pipak eta abar saihestuz.
- Musikarekin batera itzuliko dira ikasleak geletara.